

## POPBL Ikastaroa MUko Eskola Politeknikoan

2008/05/21

Torben Rosenorn jaunak Eskola Politeknikoan

Joan zen apirilaren 28 eta 29an Aalborg Unibertsitateko Esberg kampusean irakaslea den Torben Rosenorn jaunak honako ikastaroa eman zuen: "Arazoetara zuzendutako eta proiektuetan oinarritutako irakaskuntza – Problem Oriented Project Based Learning (POPBL)".

Azken urte hauetan errepikatu den formazio honen helburua, irakasleak irakaskuntza metodología aktiboetan trebatzea da. Metodologia hauek gure MENDEBERRI hezkuntza ereduaren oinarria dira eta Goi Mailako Hezkuntza Esparru Europearrera (GMHEE) egokituta dauden Ingeniaritzako Graduako titulu berrietan, lehen mailatik hasita ezarriko dira.

